## PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

| | |
|---|---|
| **Departamentua:** | 10 - KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA |
| **Atala:** | 1010 - Kultur Ondarearen Zuzendaritza Nagusia |
| **Programa:** | 100 - Artxiboetako eta Agiri Ondareko Zerbitzua |
| **Funtzionala:** | 336 - Ondare historiko-artistikoaren babesa eta kudeaketa |

**Programa mota:**

Finalista

**Misioa:**

Gure helburua ondare historiko-artistikoa, arkeologikoa, etnografikoa eta foru eta lurralde ondare dokumentala kontserbatzea, ikertzea eta zabaltzea, komunitate gisa dugun nortasuna indartzea da, komuna eta kolektiboa den iragana ezagutuz eta aitortuz. Horretarako, Ondare eta arkeologia arloak eta Artxiboen arloak (Gipuzkoako Artxibo Orokorra eta Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoa ) lankidetza estua dute lurraldeko hainbat eragilerekin, eginkizun hau modu eraginkorragoan eta partekatuagoan gauzatu ahal izateko.

**Egoeraren diagnostikoa:**

Foru-aldundiek ondare historiko-artistikoa eta arkeologikoa zaintzeko eta sustatzeko eskumen esklusiboa dute, Autonomia Estatutuan eta Lurralde Historikoen Legean jasotzen den bezala. Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legeak kultura-ondarearen arloko eskumen-banaketa ezartzen du, eta aldundiak dira lurralde bakoitzean dauden kultura-intereseko ondasunen kontserbazioaren eta sustapenaren bermatzaileak. Foru-aldundiek eskumen esklusiboa dute beren titulartasuneko artxibo historikoak kudeatzeko. Gainera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dokumentu-ondarea zaharberritzeko eskumena dute.

Nahiz eta azken urteotan aurrerapen handia izan den ondareak dituen baloreak gizartearen ulertzeko moduan eta inbertsio handiak egin diren ondare hori zaintzeko eta hedatzeko, oraindik zenbait hutsune daude, eta horien artean daude ondarearen kontserbazioari buruzko sentsibilitaterik eza, ondarea babesteari buruzko arau-garapen handiagorik eza edo erakundeen arteko koordinazio estuagorik eza.

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Aldundiak ondarearen arloan dituen eskumenei aurrekontu egoki baten bidez erantzuna ematea beharrezkoa da.
Kulturak, eta bereziki ondareak, Aldundiaren zeharkako politiketan egon behar du.
Ondareari lege-babesa zabaldu behar zaio, eta pertsona eta erakunde jabeentzako laguntzak handitu. Izan ere, ondareak balore sozial bat du, eta balore hori gizarte osoak disfrutatzen du.
Krisiaren aurreko inbertsio-maila berreskuratzea, bereziki ondare historiko-artistikoa, etnografikoa eta dokumentala zaharberritzeko laguntzetan.
Eusko Jaurlaritzarekin, udalekin, Lurraldeko eta beste Lurralde Historikoekin hainbat eragileekin lankidetza sendotzea.
Ezagutza zabaltzeko beharra.
Ondarearen inguruko sentsibilizazioa landu.
Ondarearen inguruko espezializazioak bultzatu.
Ondarea garapen ekonomiko eta sozialaren ikuspegitik ikustea.

**Nori zuzendua:**

Sektoreko hainbat eragile (profesionalak, elkarteak, irabazi asmorik gabeko erakundeak), udalak, Aldundiko departamentuak eta herritarrak.

**Programaren estrategia.**

**1. Baliabideak (inputak):**

Giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak, laguntza teknikoak, baliabide teknologikoak eta aplikazio informatikoak.

**2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:**

- Gipuzkoako Foru Aldundiak ondare historiko-artistikoa, etnografikoa, arkeologikoa eta dokumentu-ondarea kontserbatzeko, zaharberritzeko, ikertzeko eta zabaltzeko dituen eskumenak gauzatzea:

- Euskal Kultura Ondareari buruzko Legearen araberako baimen-txostenak, esku-hartzeen jarraipena eta ondare babestuaren gaineko ikuskapena
- Gipuzkoako ondare historiko-artistikoa, arkeologikoa eta dokumentala zaintzea eta zabaltzea.
- Erakunde publiko eta pribatuei ondarea kontserbatzeko aholkularitza ematea.
- Birgaitzeko, zaharberritzeko eta ikertzeko dirulaguntzak ematea.
- Jardunaldiak, mintegiak eta bisita gidatuak antolatzea, eta ondarea zabaltzeko argitalpenak sustatzea..
- Gipuzkoako Artxibo Orokorreko eta Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoko dokumentuak online antolatzea, deskribatzea, digitalizatzea, zaharberritzea eta zabaltzea.
- Gipuzkoako Artxibo Orokorraren eta Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoaren erabiltzaileen kontsultei erantzutea eta gure artxiboak eta Gipuzkoako historia ezagutarazteko ekintzak antolatzea (argitalpenak, erakusketak, bisita gidatuak...).
- Gipuzkoarentzat interesgarriak diren agirien kontserbazioa bermatzea hainbat bideren bidez (transferentziak, dohaintzak, komodatuak eta erosketak).

**3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ondare historiko-artistiko, etnografiko, arkeologiko eta dokumentalaren kontserbazioa, ikerketa eta hedapena hobetzea.
Esku-hartze eta ikerketa arkeologikoetarako baimenak ematea.
Erakunde publiko eta pribatuei ondarearen kontserbazioari buruzko aholkularitza ematea.
Birgaitzeko, zaharberritzeko eta ikertzeko dirulaguntzak ematea.
Jardunaldiak, mintegiak, bisita gidatuak, argitalpenak, ikastaroak, online katalogoak, ...
Gipuzkoako Foru Aldundiko artxibo historikoetan dokumentazioa biltzea, antolatzea, digitalizatzea eta zaharberritzea..
Artxibo historikoen erabiltzaileei dokumentuen kontsultak eta dokumentuen kopiak erraztea. Horretaz gain, gai historikoei buruzko aholkularitza eskaintzea. Beste agente batzuei dagokienez, erakusketetarako dokumentuen mailegua; instalazioen mailegua....
Artxibo historikoen instalazioak erakunde publiko eta pribatuei eskaintzea dohaintzen eta komodatuen bidez, artxiboen kontserbazioa eta hedapena bermatzeko.

**Programaren arau esparrua:**

UNESCO eta ICOMOS nazioarteko erakundeen gutunak, konbentzioak eta gomendioak. 6/2019 Euskal Kultur Ondare Legea; 234/1996 urriaren 8ko Dekretua, balizko eremu arkeologikoetarako; 306/1998 Dekretua, azaroaren 10ekoa, kalifikatutako eta zerrendatutako kultura ondasunen aurri egoeraren deklarazioari buruzkoa; 341/1999 DEKRETUA, 1999ko urriaren 5ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan aurkitutako interes arkeologikoa edo paleontologikoa duten ondasunak garraiatu, entregatu eta gordailuan uzteko baldintzei buruzkoa. 214/1996 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, hiritartu eta eraikitako ondarea birgaitzeko jarduera babestuei buruzkoa dena; Ingurumen Eragineko Ebaluazioari buruzko araudia; Ondare historiko-artistikoa kontserbatzeko eta ondare arkeologikoa induskatu eta ikertzeko dirulaguntzak arautzen dituzten foru-dekretuak.
Dokumentu-ondarearen eremuan, nahiz eta aldundiek eskumena duten beren artxiboetan, horietan dokumentu-ondarea kudeatzen den heinean, Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legea aplikatuko litzateke, betiere eskumen-banaketaren esparruan. Baita ere 232/2000 DEKRETUA, azaroaren 21ekoa, Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea erregulatzeko arauak onartzen dituena. Datuen sarbideari eta babesari buruzko araudia... Gainera, ikuspegi teknikotik, nazioarteko araudia aplikatzea dokumentuak deskribatzeko eta kudeatzeko: ISAD (G) eta ISAAR; tesauroen ISO arauak...

**2024-2027 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA**

**Urteko helburua:** Behar artistiko eta kulturalei erantzutea, egungo ekosistema indartzeko eta ekosistema kultural berriak sortzeko ahaleginari eutsiz eta euskal kultura sustatuz.

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Zenbat eskaera espediente tramitatu dituen Zerbitzuak Euskal Herriko Kultur Ondarearen Legeak | Kopurua | >= | 552,00 | 400,00 | 400,00 | 400,00 |

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| babestutako ondare arkitektoniko eta arkeologikoan esku-hartzeko | | | | | | |
| GFAk urtero deitzen dituen dirulaguntza lerroetan dauden pertsona eta entitate onuradun berrien ehunekoa. | Ehunekoa | >= | 8,00 | 0,50 | 0,50 | 2,00 |
| Gipuzkoako artxiboen atarian foru artxibo historikoek argitaratutako dokumentuen eta irudien deskribapenen kopurua urtean | Kopurua | >= | 4.348.017,00 | 130.000,00 | 150.000,00 | 3.900.000,00 |
| Kultur jardueren ekarpena BPGarekiko | Kopurua | = | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Kultur enpleguaren ehunekoa (%) guztizko enpleguarekiko | Ehunekoa | = | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| Plan estrategikoko zeharkako politikei lotutako eta kultura arlotik emandako dirulaguntzen ehunekoa (%) | Ehunekoa | = | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |

## Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

### 1. Ekintza lerroa:

Herritarrek kultura- eta arte-adierazpenekiko jakin-mina eta irekitasuna izan dezaten bultzatzea, bizialdi osoko ikaskuntzaren ideiari lagunduz eta belaunaldien arteko transmisioaren alde.

11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK % 51,50

18 HIZKUNTZA ETA KULTUR ANIZTASUNA % 0,59

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **1.262.450,00** | **5.000,00** | | **2025/01/01** | **2026/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>Gipuzkoarako interes historikoa duen dokumentazioa bildu transferentzien, dohaintzen, komodatoen eta erosketen bitartez | 38.000,00 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |
| **1.2 Ekintza**<br>Erreferentziako erakundei diru laguntzak eman: Eresbil Fundazioa. Musikaren Euskal Artxiboa, Lazkaoko Beneditarren Fundazioa. Erakunde horiek Departamentuarekin ondare dokumentalaren kontserbazio eta hedapen helburuak partekatzen dituzte... | 482.200,00 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |
| **1.3 Ekintza**<br>Gipuzkoako Artxibo  Orokorrak eta Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikok gordetzen dituzten | 689.750,00 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| dokumentuak antolatu, deskribatu, digitalizatu eta hedatu | | | | | | |
| **1.4 Ekintza**<br>Herritarrei oro har eta ikertzailei bereziki zerbitzu eta edukiak eskaini: erabiltzaiei arreta; dokumentuen kontsulta eta kopiak, bai artxiboetan bertan, bai interneten bidez; argitalpenak... | 42.500,00 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |
| **1.5 Ekintza**<br>Ikerketa historikoa sustatzea beken bidez | 10.000,00 | 5.000,00 | | 2025/01/01 | 2026/12/31 | |

## DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA

**Urteko helburua:** Gipuzkoako Foru Aldundiko artxibo historikoek kudeatzen duten ondare dokumentalaren artapena, ikerketa eta zabalkuntza bermatzea, eta Gipuzkoako beste erakunde batzuekin kolaboratzea ondare dokumentala artatu eta zabaldu dadin, bereziki Gipuzkoako artxiboen webgunearen bitartez.

| Adierazlea | Neurri-unitatea | Helburu mota | Azken balioa | Aurtengo aurreikuspena | Urteko helburua | Agintaldiko helburua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Foru artxibo historikoen atarian kontsultatutako web orrien kopurua urtean | Kopurua | >= | 446.532,00 | 550.000,00 | 550.000,00 | 580.000,00 |

### Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

**1. Ekintza lerroa:**

Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen duen ondare dokumentalaren kontserbazioa, ikerketa eta hedapena bermatu Gipuzkoako Artxibo Orokorraren eta Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoaren bidez, gure historia ezagutzeko. Halaber, Gipuzkoarako interesa duen ondare dokumentala jaso eta hedatu

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA % 19,97 — 11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK % 31,27 — 16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK % 19,97 — 18 HIZKUNTZA ETA KULTUR ANIZTASUNA % 10,69

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **2.679.486,00** | | | **2025/01/01** | **2025/12/31** | |
| **1.1 Ekintza**<br>Bi artxibo kudeatu, kontserbazio, ikerketa eta hedapen helburuak bete ditzaten bermatzeko: giza baliabide eta baliabide ekonomikoak eraikinen eta zerbitzuen funtzionamendurako eta mantentzerako | 2.106.436,00 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **1.2 Ekintza**<br>Bi artxiboen eraikinak eta instalazioak hobetu | 345.000,00 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |
| **1.3 Ekintza**<br>Bi artxibo hauetan gordetzen dituzten dokumentuak zaindu eta zaharberritu | 228.050,00 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |

**2. Ekintza lerroa:**

Gipuzkoako ondare dokumentalaren kontserbazioa eta hedapena sustatu, foru aldundiaren eskumenaren arabera

11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK % 50,00

18 HIZKUNTZA ETA KULTUR ANIZTASUNA % 50,00

| | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak | Sarrera lotua | Hasiera data | Bukaera data | Etorkizuna eraikiz |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ekintza lerroa, guztira** | **46.120,00** | | | **2025/01/01** | **2025/12/31** | |
| **2.1 Ekintza**<br>Gipuzkoako Lurralde Historikoko ondare dokumentala publikoa nahiz pribatua zaharberritzeko diru laguntzak eman | 46.120,00 | | | 2025/01/01 | 2025/12/31 | |

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Ertaina

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Pertsona helduak

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Gizarte gipuzkoarrean, kulturaren praktikaren alorreko emakume eragileen presentzia eta ikusgarritasuna handitu eta indartzea

| | | |
|---|---|---|
| **Kuantifikazioa:** | 212,50 | ( % 0,01 ) |
| **Ordainketa kredituak:** | 212,50 | ( % 0,01 ) |
| **Datozen urteetako gastuak:** | 0,00 | ( % 0,00 ) |

| Kategoria | Nola | Nola % | Esleitutako adierazlea |
|---|---|---|---|
| **Ea.HO.9.2. Emakumeen protagonismoa sustatzea kultur ekitaldi eta proposamen guztietan (artistikoak, jai girokoak, oroitzapenezkoak, kirol arlokoak eta euskararen hizkuntza normalizazioaren esparruan egiten direnak).** | **Ea.9.2.1. Ekintza positiboko neurriak abiaraztea emakumeen parte hartzea eta erabaki hartzeak emendatzeko nola jai guneetan hala arte, literatura eta ikus-entzunezkoen ekoizpenean.** | **( % 100,00 )** | |

## HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO PLANA

**Beharraren deskribapen xehatua:**

Lurraldeko kulturan bitarteko jardun desoreka disglosikoa eta euskarazko kultur baliabideen gabeziari aurre egiteko.

| Kategoria | Nola |
|---|---|
| **6.- Hizkuntza-klausulak** | **Lurraldeko kulturan bitarteko jardun desoreka disglosikoa eta euskarazko kultur baliabideen gabeziari aurre egiteko.** |

## GJH

**Beharraren deskribapen xehatua:**

4.7, 11.4, 16.6 eta 17.7 helmugak kontuan hartzen dira  Ondare Historiko-artistikoaren eta Artxiboen Zerbitzuaren ekintza guztietan orokorki, beraz esan daiteke aurrekontu osoa bideratuta dagoela helmuga horiek lortzeko bidean.

**Kuantifikazioa:** 2.901.025,00 ( % 82,69 )

## Programari lotutako GJH zerrenda

| GJH, Helburu eta Ekintza lerroak | | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak |
|---|---|---|---|
| 4 KALITATEZKO HEZKUNTZA | 4-Kalitatezko hezkuntza<br><br>Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea. | **535.137,90** | |
| **Helburua** | 4.7 - 2030. urterako, ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza aberatsak eta praktikoak eskuratzen dituztela bermatzea, besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizimodu jasangarrietarako hezkuntzaren, giza eskubideen, genero berdintasunaren, bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura sustatzearen, mundu mailako hirigintzaren eta aniztasun kulturalaren eta kulturaren garapenerako hezkuntzaren bitartez. | 535.137,90 | |
| | **Ekintza lerroak** | | |
| | Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen duen ondare dokumentalaren kontserbazioa, ikerketa eta hedapena bermatu Gipuzkoako Artxibo Orokorraren  eta Gipuzkoako Probintziako  Artxibo Historikoaren bidez, gure historia ezagutzeko. Halaber, Gipuzkoarako interesa duen ondare dokumentala jaso eta hedatu | 535.137,90 | |
| 11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK | 11-Hiri eta komunitate jasangarriak<br><br>Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea. | **1.511.164,20** | **2.500,00** |
| **Helburua** | 11.4 - Gipuzkoako kultura-, natura- eta historia-ondarea babesteko eta zaintzeko ahaleginak areagotzea. | 1.511.164,20 | 2.500,00 |
| | **Ekintza lerroak** | | |
| | Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen duen ondare dokumentalaren kontserbazioa, ikerketa eta hedapena bermatu Gipuzkoako Artxibo Orokorraren  eta Gipuzkoako Probintziako  Artxibo Historikoaren bidez, gure historia ezagutzeko. Halaber, Gipuzkoarako interesa duen ondare dokumentala jaso eta hedatu | 837.879,20 | |
| | Gipuzkoako ondare dokumentalaren kontserbazioa eta hedapena sustatu, foru aldundiaren eskumenaren arabera | 23.060,00 | |
| | Herritarrek kultura- eta arte-adierazpenekiko jakin-mina eta irekitasuna izan dezaten bultzatzea, bizialdi osoko ikaskuntzaren ideiari lagunduz eta belaunaldien arteko transmisioaren alde. | 650.225,00 | 2.500,00 |

| GJH, Helburu eta Ekintza lerroak | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak |
|---|---|---|
| 16-Bakea, justitzia eta instituzio sendoak<br><br>Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan. | **535.137,90** | |
| **Helburua** 16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan | 535.137,90 | |
| **Ekintza lerroak** | | |
| Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen duen ondare dokumentalaren kontserbazioa, ikerketa eta hedapena bermatu Gipuzkoako Artxibo Orokorraren eta Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoaren bidez, gure historia ezagutzeko. Halaber, Gipuzkoarako interesa duen ondare dokumentala jaso eta hedatu | 535.137,90 | |
| 18-kultura eta hizkuntza aniztasuna<br><br>18-kultura eta hizkuntza aniztasuna | **314.585,00** | **2.500,00** |
| **Helburua** - Eskubide kulturalak bermatzea, gizarte inklusiboetan garapen jasangarrirako herritartasun kulturala eraikitzeko elementu gisa. | 314.585,00 | 2.500,00 |
| **Ekintza lerroak** | | |
| Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen duen ondare dokumentalaren kontserbazioa, ikerketa eta hedapena bermatu Gipuzkoako Artxibo Orokorraren eta Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoaren bidez, gure historia ezagutzeko. Halaber, Gipuzkoarako interesa duen ondare dokumentala jaso eta hedatu | 286.525,00 | |
| Gipuzkoako ondare dokumentalaren kontserbazioa eta hedapena sustatu, foru aldundiaren eskumenaren arabera | 23.060,00 | |
| Herritarrek kultura- eta arte-adierazpenekiko jakin-mina eta irekitasuna izan dezaten bultzatzea, bizialdi osoko ikaskuntzaren ideiari lagunduz eta belaunaldien arteko transmisioaren alde. | 5.000,00 | 2.500,00 |
| **Guztira** | **2.896.025,00** | **5.000,00** |

## PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

| Gastuen kapituluak / Capítulos gastos | 2024 | 2025 | Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2026 | 2027 | 2028 | 2029 eta hurrengoak/ 2029 y siguientes | Guztira / Total |
| 1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL | 1.409.364,00 | 1.425.236,00 | | | | | |
| 2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS | 1.681.400,00 | 1.354.400,00 | | | | | |
| 3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 883.516,00 | 502.200,00 | 5.000,00 | | | | 5.000,00 |
| 5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS | | | | | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes** | **3.974.280,00** | **3.281.836,00** | **5.000,00** | | | | **5.000,00** |
| 6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES | 916.000,00 | 670.100,00 | | | | | |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | 1.590.430,00 | 36.120,00 | | | | | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital** | **2.506.430,00** | **706.220,00** | | | | | |
| 8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS | | | | | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras** | | | | | | | |
| **Guztira / Total** | **6.480.710,00** | **3.988.056,00** | **5.000,00** | | | | **5.000,00** |

| Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capitulos | Ordainketa kredituak / Créditos de pago | | Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros | | Guztira / Total | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo | Estrategikoa / Estratégico | Operatiboa / Operativo |
| 1. LANGILERIA GASTUAK<br>GASTOS DE PERSONAL | | 1.425.236,00 | | | | 1.425.236,00 |
| 2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK<br>GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS | 575.000,00 | 779.400,00 | | | 575.000,00 | 779.400,00 |
| 3. FINANTZA GASTUAK<br>GASTOS FINANCIEROS | | | | | | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK<br>TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 492.200,00 | 10.000,00 | 5.000,00 | | 497.200,00 | 10.000,00 |
| 5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA<br>FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS | | | | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira<br>Total operaciones corrientes** | **1.067.200,00** | **2.214.636,00** | **5.000,00** | | **1.072.200,00** | **2.214.636,00** |
| 6. INBERTSIO ERREALAK<br>INVERSIONES REALES | 195.250,00 | 474.850,00 | | | 195.250,00 | 474.850,00 |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK<br>TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | | 36.120,00 | | | | 36.120,00 |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira<br>Total operaciones de capital** | **195.250,00** | **510.970,00** | | | **195.250,00** | **510.970,00** |
| 8. AKTIBO FINANTZARIOAK<br>ACTIVOS FINANCIEROS | | | | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK<br>PASIVOS FINANCIEROS | | | | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira<br>Total operaciones financieras** | | | | | | |
| **Guztira / Total** | **1.262.450,00** | **2.725.606,00** | **5.000,00** | | **1.267.450,00** | **2.725.606,00** |

| Sarreren kapituluak / Capítulos de ingresos | 2024 | 2025 | Gastuari lotutakoak / Afectados a gasto |
|---|---|---|---|
| 1. ZUZENEKO ZERGAK<br>IMPUESTOS DIRECTOS | | | |
| 2. ZEHARKAKO ZERGAK<br>IMPUESTOS INDIRECTOS | | | |
| 3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK<br>TASAS Y OTROS INGRESOS | 2.000,00 | 2.000,00 | |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK<br>TRANSFERENCIAS CORRIENTES | | | |
| 5. ONDARE SARRERAK<br>INGRESOS PATRIMONIALES | | | |
| **Eragiketa arruntak, guztira<br>Total operaciones corrientes** | **2.000,00** | **2.000,00** | |
| 6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA<br>ENAJENACION DE INVERSIONES REALES | | | |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK<br>TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | | | |
| **Kapitaleko eragiketak, guztira<br>Total operaciones de capital** | | | |
| 8. AKTIKO FINANTZARIOAK<br>ACTIVOS FINANCIEROS | | | |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK<br>PASIVOS FINANCIEROS | | | |
| **Finantza eragiketak, guztira<br>Total operaciones financieras** | | | |
| **Guztira / Total** | **2.000,00** | **2.000,00** | |